

## NAHITAEZKO ERRETIROA ADINAGATIK

### ARAUDIA:

- Estatuko Klase Pasiboen Legearen Testu Bategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.

- Administrazio Publikorako Estatu-idazkaritzaren 1995eko abenduaren 29ko Ebazpena, Estatuko klase pasiboen araubideko estaldura-esparruaren barruko langile zibilek erretiroa hartzeko prozeduren gaineko arauak jasotzen dituena.

- 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

### BETEKIZUNAK:

Funtzionario publikoen nahitaezko erretiroa ofizioz adieraziko da **65 urte** adina betetzean.

**Erretiro pentsioaren zenbatekoa Estatuko Klase Pasiboen** unitateak zehazten du beti (Yanguas y Miranda kalea, 31, 6.a, Iruña. Tel.: 948 20 33 31)

Funtzionario publikoek jarduneko zerbitzuan jarraitzeko aukera dute gehienez ere 70 (\*) urte bete arte, ondoko prozeduraren arabera:

### PROZEDURA:

Erretirorako adina (65 urte) bete baino sei hilabete lehenago funtzionarioei inprimaki bat igortzen zaie non adierazi behar duten ondoko aukeretako zein hautatzen duten:

- 65 urte adina betetzen duten egunean erretiroa hartzea.

- 65 urte betetzen dituzten ikasturtea bukatzean erretiroa hartzea.

- (\*) Jarduneko zerbitzuan jarraitzea. Aukera hau bi kasutan besterik ez da baimentzen: nahitaezko erretiroaren egunean beren gizarte aurreikuspeneko sisteman pentsiorako eskubidea sortzeko ezarritako gabealdia betetzen ez duten langileen kasuan, eta pentsio osoa jasotzeko kotizazio urteetara iritsi ez diren langileen kasuan. Bi kasuetan jarduneko zerbitzuan jarraitzen ahal da xede horietarako epeak bete arte eta, betiere, hirurogeita hamar urte izan arte. (Gogoratu gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazi behar zaiola Departamentu honi zein egunetan hartu nahi den erretiroa).

- Erretiroaren aukera jakinarazitakoan, Giza Baliabideen Zerbitzuak funtzionarioari “J” inprimakia igorriko dio non adieraziko diren, besteak beste, haren espediente pertsonalean ageri diren Administrazio Publikoentzat emandako zerbitzuak.

Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean kotizazioak egiaztatuta dituzten funtzionarioek eska dezakete kuotak batera konputatzea, ondorioak izan ditzan pentsiorako eskubidea eskuratzeko zein pentsioaren kalkulurako aplikatuko den ehunekoa zehazteko.

Ondoren, erretiroaren gaineko ebazpena eman eta igorriko zaie interesdunari eta pentsioa ordaintzeko eskumena duten erakundeei.

- Gehienez 70 urteko adinera arte jarduneko zerbitzuan jarraitzeko baimena ematen zaien funtzionarioek jarduneko zerbitzuaren luzapena bukatu nahi badute, erretirorako aurrez ikusitako eguna baino gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dute.

- Jarduneko zerbitzuan jarraitzeko baimena ematen zaien funtzionarioei 70 urte bete baino hiru hilabete lehenago igorriko zaie erretiroaren inprimakia.